

“FAMILIA BIDEZKO JARRAIPENA” - 2020

Azpi-egitasmoak:

- Gurasoei begirako kanpaina
- Familien arteko lehiaketa.
- “Euskaraz oparitu”
- “Kalean olgetan” kanpaina

BALANTZEA ETA JUSTIFIKAZIOA

AURKIBIDEA

1.- SARRERA

2.- HELBURUAK

3.- AZPI-EGITASMOAK

3.1.- “Gurasoei begirako kanpaina”

3.1.1.- Oinarriak

3.1.2.- Eragileak eta baliabideak

3.1.3.- Balorazioa – “Gurasoei begirako kanpaina”

3.1.4.- Aurrekontua

3.2.- “Familien arteko lehiaketa erraldoia-2019”

3.2.1.- Oinarriak

3.2.2.- Eragileak eta baliabideak

3.2.3.- Balorazioa –Familien arteko lehiaketa

3.2.4.- Aurrekontua

3.3.- “Euskeraz oparitu” kanpaina.

3.3.1.- Oinarriak

3.3.2.- Eragileak eta baliabideak

3.3.3.- Balorazioa – Euskeraz oparitu

3.3.4.- Aurrekontua

4. KRONOGRAMA

5.- AURREKONTUA GUZTIRA

ERANSKINAK:

I. Eranskina: Gurasoei begirako kanpaina (euskarriak)

II. Eranskina: Guraso talde bereziak (ikastaroei buruzko txostenak)

III. Eranskina: Euskeraz oparitu (euskarria)

1.-SARRERA

Egitasmo orokor bat dugu “Familiabidezko jarraipena” dinamizazio proiektua eta horren barruan txertatzen ditugu zenbait azpiegitasmo. Aurtengoan aurrekontu murrizketa gogorra bizi izan dugu pandemiaren ondorioz eta, gainera, egitasmo genituen proiektu batzuk ere ezin izan ditugu burutu larrialdiak eragindako baldintzak direla eta.

Eutsi egin zaie ohiko azpi egitasmoei, gutxienez konfinamendua ezarri zen egunera arte, eta baztertu egin behar izan dira beste batzuk:

- **“Gurasoei begirako kanpaina” MANTENDU:** Alkarbidek urtero koordinatzen dituen kanpainetan parte hartu dugu (eman giltza, emaiouzu bizia), daukagun materiala osatzeko. Aurtengoan ere, 2016an martxan jarritako eskaintza berri bati eutsi diogu: HIK HASI erakundearen Hazi Hezi aldizkariaren harpidetza jaioberrien gurasoentzat. Horrez gain, atal honetan daukagu aintzat hartuta “Gurasoentzako ikastaro bereziak” deituriko azpi-egitasmoa, guraso erdaldunei zuzendua, martxoaren azkenera arte garatu izan dena.

2019-2020 ikasturterako Alkarbidek koordinatu duen Eskola Agendan ere parte hartu dugu eta azpiegitasmo hori atal honetan txertaturik dago, agenda horren bidez haurrak gurasoekin dituen harremanak lantzen direlako, eskola bitarteko.

- **Familiaren arteko lehiaketa erraldoia** (3-6 urte bitarteko umei eta euren gurasoei begirakoa) **BAZTERTU** egin behar izan da bizi dugun larrialdi egoeragatik.
- **“Euskaraz oparitu” kanpaina MANTENDU** egin da, baina euskarri fisikoa saihestu egin dira eta zabalkundea sare sozialetatik egin da oso-osorik.
- **“Kalean Olgetan”** lemapeko kanpaina **BAZTERTU** egin da (2016ko kale neurketaren datuengatik kezkatuta esperientzia pilotu bat izan genuen 2017an eta tajuz garatu zen 2018an eta 2019an); 5-12 urte bitarteko haurrengan maila informalean eragiteko asmatutako kanpaina, urteko azken hiruhilekoan garatzekoa zena kaleko jolas leku desberdinetan. Larrialdiak ezarritako baldintzak oztupo izan dira.

2.- HELBURUAK



“FAMILIA BIDEZKO JARRAIPENA” deituriko proiektu hau, aipatu lau azpi-egitasmoekin osatzen dena, 2019-2022 eperako indarrean dagoen Euskara Sustatzeko Ekintza Planean aintzat harturiko neurri eta ekintzekin bat dator eta, ondorioz, 2019ko Kudeaketa Planarekin ere bai; biak onartu ziren 2019ko otsailaren 27ko Osoko Bilkuran.

Egitasmo orokor honen arabera, 2020ko Kudeaketa Planean txertatu diren zenbait helburu, neurri eta ekintza bete nahi izan dira (guztiak ezin izan dira landu, egitasmo batzuk baztertu egin behar izan dira eta):

Helburu estrategikoa: Euskararen transmisioa Esparrua / Neurria / Ekintza

1. Familia bidezko transmisioa

1.1. Sentsibilizazioa eta motibazioa etengabe lantzea (Toki erakundeak)

1.1.4. Gurasoei euskara eta euskal kulturari lotutako produktuak ezagutarazi eta eskura jartzea

- 1.1.4.1.-Haur jaio berrien gurasoei euskara eta euskal kulturari lotutako bildumak igorri: ipulnak, kantuak,# (SOBREA /MATERIALA: ku-ku, guraso elebidunen eskuliburua,#)
- 1.1.4.2.- Euskarazko produktuen katalogoa ezagutzera eman: web orrian, gurasoei bidali, udalaren menpeko guneetan eskuragarri jarri#

1.3. Familia barruan euskararen erabilera sustatzea (Toki erakundeak)

1.3.1. Eskolatik kanpo zeln eskolan bertan ere gurasoek eta umeek euskara erabiltzeko guneak sortzea eta elikatzea

- 1.3.1.1.- "Euskera olgetan errotu" kanpaina burutu, gurasoak eta umeak batera jolasean

Helburu estrategikoa: Helburu guztietarako zehar-lerroak Esparrua / Neurria / Ekintza

14. Sentsibilizazioa eta motibazioa

14.2. Familia transmisioa (Toki erakundeak)

14.2.1. Gurasoengan, guraso izango direnengan eta aitona-amonengan eragitea, euskararen familia bidezko transmisioa ziurtatzeko

- 14.2.1.1.- Guraso eta aitona.amonenganako sentsibilizazio kanpaina burutu, ikastalde eta ikastaro bereziak sortzeko

Gurasoentzat ikastaro bereziak antolatzen dira 14.2.1.1. azpiekintzari jarraiki eta Berbalagun egitasmoarekiko loturak ere lantzen dira Guraso Elkarteekin. Diru laguntzei dagokienean, gurasoei ere zabalkunde berezia egiten zaie.

3- AZPI-EGITASMOAK

3.1.- “GURASOEI BEGIRAKO KANPAINA”

Alkarbidek urtero koordinatzen dituen kanpainetan parte hartu dugu (eman giltza, emaiozu bizia), aurreko urteetan jasotako materiala osatzeko (KU-KU argitalpena -abesti bilduma-, ume elebidunen gurasoentzako aholku liburuxka, adur zapiak, pegatinak, askari poltsak).

Jarraitu egin da gurasoei ikastaro bereziak eskaintzen eta horretarako sentsibilizazio kanpaina berezi bat burutu da.

2016rako gauza berri bat erantsi genion azpiatal honi: HIK HASI erakundearen Hazi Hezi aldizkariaren harpidetza jaioberrien guraso euskaldunentzat. Hiruhilabetekaria da, gurasoberrientzat gai interesgarriak lantzen dituen aldizkari bakarra; 2016-2017 ikasturtean 57 gurasok eman zuten izena harpidedun izateko eta 2017-2018koan, horiek mantentzeaz gain, ia beste horrenbeste lortu izan dira (beste51). Harpidetzaz gain, Hazi Hezi aldizkariaren ale bereziaren 400 ale ere eskuratu genituen 2016an, edoskitzea eta jaioberrien kontuarekin lotuta dagoen alea.

Sarrera idatzian esan bezala, 2020an parte hartu dugu Alkarbidek koordinatzen duen Eskola Agendan eta azpiegitasmo hori atal honetan txertatzea egokitzat jo dugu, agenda horren bidez haurrak gurasoekin dituen harremanak lantzen direlako, eskola bitarteko.

3.1.1.- OINARRIAK (materiala)

- “Ondorengoetaratzeko kanpaina”-ko soberan egon den materiala banatu zaie jaioberrien gurasoei: gutuna, ume elebidunen gurasoentzako aholku liburuxka, oparia, ku-ku liburuxka, HAZI HEZI aldizkariaren ale berezia.
- Gurasoei begirako euskarazko klaseak (AEK euskaltegiarekin elkarlanean).
- Anbulatorioarekin elkarlana, han ere jaioberrien gurasoei materiala banatzeko.
- HIK HASI erakundearekin eta ikastetxeekin elkarlana.
- Alkarbideren bitartez 400 bat eskola agenda eskuratu dira 2019-2020 ikasturterako, hiru irakaskuntza zentroetako LHko azken zikloko ikasleentzat: Barrutia ikastetxea, San Fidel Ikastola eta Seber Altube ikastola.

3.1.2.- ERAGILEAK ETA BALIABIDEAK

- Eragileak:

- Euskara Zerbitzua.
- Udal Eskola Kontseilua eta guraso elkarteak.
- AEK euskaltea (gurasoentzat eskaintako klaseak).
- Udaleko Erregistro eta Estatistika saila (jaioberrien gurasoei materiala)
- Anbulatorioko pediatria eta emaginaren zerbitzuak.
- HIK HASI erakundeko arduradunak.
- Alkarbide (Eskola Agenda)

- Baliabideak:

- Diru iturriak Euskara Zerbitzuarenak.
- Giza baliabideak: Euskara Zerbitzuarenak (HNT1), anbulatoriokoak (pediatria eta ginekologiako erizainak -2- eta emagina), eskoletako euskara arduradunak (gurasoei begirako kanpaina bideratzeko), euskaltegiak irakasleak (ikastaro bereziak), Udal Erregistroko arduraduna eta HIK HASI erakundeko arduradunak; Alkarbideko teknikariak.
- Erabili diren euskarri nagusiak, materiala:
 - Gutuna (jaioberrien gurasoei)
 - “Ku-Ku” haur kantak.
 - Ume elebidunen gurasoentzako aholkuen liburuxka.
 - Emaiozu bizia liburuxka eta DVDA
 - HAZI HEZI hiruhilabetekariaren harpidetza urte beterako.
 - Gurasoen ikastaldea eratzeko gutuna/fitxa (zabalkundea)

3.1.3.- BALORAZIOA – “GURASOEI BEGIRAKO KANPAINA”

Balorazio kuantitatiboa:

- “Ondorengoetarate kanpainako” xede taldea jaioberrien gurasoak (2020an 180 jaioberri) izan dira eta guztiei eman zaie materiala umea errolatzerakoan. Beraz, alde honetatik %100ean bete da helburua.
- “Emaiozu bizia” kanpainako xede taldea umea izatear dauden gurasoei begirakoa da, beraz 200 bat bikote. Guztiei banatu zaie kanpainako materiala eta prestakuntza saioetan ere txertatu egin du emaginak hizkuntzaren tratamenduari buruzko hausnarketa saioa.

Balorazio kualitatiboa:

- Sentsibilizazio kanpainak dira, beraz eragina neurtzeko beren-beregiko tresnak baliatzea oso zaila da. Kasu honetan, euskararen erabileraren neurketaren emaitzen jarraipena egiten dugu (Eustat-en datuak eta Soziolinguistika Klusterraren neurketa berezienak) eta, horren arabera, burutu beharreko ekintzak egokitu edota berriak eratu.
- Badago adierazle bat oso garrantzitsua, ez dakiguna kanpainaren ondorio den, baina familiak euskararekiko duen konpromisoaren berri ematen diguna: haur hezkuntzan matrikulatzen diren haur guztiak (%100) D ereduan matrikulatzen dira. Esan behar da gure udalerrian ez dagoela beste eredurik.

Ama-hizkuntza euskara (%)- Iturria: Eustat

UDALERRIA	1986	1991	1996	2001	2006	2011	ALDEA
Gernika-Lumo	60,8	60,6	60,7	59,80	55,42	53,50	-7,3
Bermeo	71,3	71,5	70,2	67,00	62,60	59,91	-11,13
Mungia	56,8	54,7	48,9	44,14	38,82	35,85	-20,95
EUSK. AUT. ELK.		20,6	20,6	18,80	19,41	19,27	-1,33

Hemen beheranzko bidea dugu orokorrean, apurka-apurka baina beherantza. Hizkuntza-gaitasunaren kasuan gertatu moduan, 2001-2006 urte bitarteko inflexioa ere nabarmentzen da hemen ere, beherakada handiagoa da beste urteetan baino eta.

Etxean euskaraz egiten dutenen portzentajea (iturria: Eustat)



UDALERRIA	1991	1996	2001	2006	2011	Aldea
Gernika-Lumo	% 41,07 6.448 hiztun 15.697 biztanle	% 41,00 6.331 hiztun 15.439 biztanle	% 41,79 6.379 hiztun 15.264 biztanle	% 41,45 6.625 hiztun 15.981 biztanle	% 40,89 6.361 15.558	-0,18
Bermeo	% 55,74 9.991 hiztun. 17.923 biztanle	% 55,89 9.601 hiztun 17.176 biztanle	% 53,56 9.072 hiztun 16.938 biztanle	% 49,24 8.267 hizun. 16.789 biztanle.	% 45,21	-10,53
Mungia	% 34,00 4.046 hiztun 11.900 biztanle	% 31,57 4.044 hiztun 12.807 biztanle	% 27,64 3.817 hiztun 13.807 biztanle	% 22,59 3.451 hiztun 15.275 biztanle	% 22,75	-11,41
EUSK. AUT. ELK.	% 13,79 290.329 hiztun 2.104.041 biztanle	% 13,63 286.092 hiztun 2.098.055	% 13,64 284.084 hiztun 2.082.587 biztanle	% 13,02 277.277 hiztun 2.129.339 biztanle	% 14,08	+0,29

Inguruko herrietan kontrako joera izan bada, Gernika-Lumon etxe barruan euskararekiko fideltasuna mantendu egin da, EAEn dagoen joerari eutsiz.

Anbulatorioko pediatria zerbitzukoek egindako datu-bilketa 2012ko ekainean zehar

Lagina		468 harreman gurasoekin eta 311 harreman haurrekin (ekainean zehar)
Gurasoak Gernika-Lumokoak	%85	Gernika-Lumokoak baino ingurukoak esan beharko, anbulatorioak eskualderako zerbitzua ematen duelako
Gurasoak atzerritarrak	%15	Jaiotza tasaren igoera etorri berrien familiei diegu zor eta etorri berriak biztanleriaren %10a baino izan ez arren, pediatriako zerbitzuetan %15a dira.
Pediatriakoekin gurasoek euskaraz	%71	Pediatria zerbitzuan helduek ere gehiago erabiltzen dute euskara (zerbitzuko langileen motibazioa bitarteko? Bertako langileek euskaraz egin eta euren "prestigioa"-k erakarrita? Aserbitbitea?) Datu honek, udalemiko euskaldunen portzentajea gaimditu egiten du (%67,87) eta helduen kaleko erabilera ere nabarmen (%43,30)
Pediatriakoekin gurasoek euskaraz hala-hola	%4-5	Kopuru txikia da eta gurasoen zein umeen kasuan beretsua, baina datu interesgarria, konplejuak baztertzen ari direlako. Elebidun hartzaile direnak sar ditzakegu hemen.
Pediatriakoekin gurasoek erdaraz	%25	Guraso etorri berriak (%15) eta bertokoen %10a pilatzen dira hemen.
Pediatriakoekin umeek euskaraz	%85	Umeen erabilera ikusita (%85), ondorioa: kaleko umeen erabilera ere (%69,10) gaimditu egiten da. Pediatriara joan diren guraso/tutore euskaldunen eta euskaraz aritu izan diren umeen portzentajeak berdinak dira (%85); horrek adierazten digu ume euskaldunen euskararekiko atxikimendua %100koa izan dela.
Pediatriakoekin umeek euskaraz hala hola	%6	Kopuru txikia da eta gurasoen zein umeen kasuan beretsua, baina datu interesgarria, konplejuak baztertzen ari direlako. Portzentaje hau guraso atzerritarrak dituzten umeen multzotik datorrela esan dezakegu, hizkuntza integrazioa nolabait gauzatzen delako seinale.
Pediatriakoekin umeek erdaraz	%9	Beraz, bertoko umeek guztiek dihardute euskaraz pediatriakoekin; gainera, atzerritarren bisiten portzentajea %15 izanik, esan nahi du beraietatik heren batek ere euskarari eusten diola gune horretan.

Aurrera begirako proposamena

2020ko sistema berberarekin jarraitzea da asmoa, materiala banatzeko.

Anbulatorioko pediatria zerbitzuarekin elkarlanari eutsi behar zaio. Elkarlan horren emaitza dugu guk planteaturiko erabilera neurketa egin izatea. Egindako inkesta horren emaitzak ezin positiboagoak ditugu, atal honetako balorazioa egiterakoan agertzen den koadroan islatu bezala.

Sasoi batean pediatria zerbitzuarekin abian jarritako akordioari jarraiki, ginekologia eta emaginaren zereginetan eragitea posible izan dugu 2020an eta bide horretatik jarraitu behar dugu.

3.1.4.- AURREKONTUA-GASTUAK (gurasoei begirakoa)

Gastuak

Ondorengoetaratze kanpainarako euskarriak (materiala /)	780,45
HIK HASI (hiruhilabetekariaren harpidetza)	630,00
Gurasoei euskarazko ikastaro bereziak 1.066,80+711,20	1.778,00
Eskola agenda:	3.655,72
- Testuak egokitzea..... 216,47	
- Diseinua, ilustr., inprimaketa,..... 3.439,25	
GUZTIRA	6.844,17

3-2 FAMILIEN ARTEKO LEHIAKETA ERRALDOIA ("EUSKERA OLGETAN ERROTU)

Azpi egitasmo hau berreskuratzeko ahalegin berezia egin zen 2014an, 2012 eta 2013 urteetako etenaren ostean, gurasoen aldetik jaso ziren eskaera bereziak bitarteko. Esparru ez formalean euskararen erabilpenerako azpiegitasmo honek sortzen dituen baldintzak eta eragina kontuan hartuta, berreskuratu beharrean izan ginen, ahaztu barik familia osoari begirako dugun egitasmo bakarra zela. 2019an eutsi zitzaion sendo...eta 2020an BAZTERTU beharrean aurkitu gara, covid19-ak eragindako larrialdiak oztopatu egin duelako garatzea.

3.3.- "EUSKARAZ OPARITU" KANPAINA

Sarrera idatzian esandakoa dakargu hona: "...*hau ere Alkarbidek koordinatzen du; guk ez dugu katalogoa banatzen, baina kanpainarekin bat eginda, geure baliabideekin garatu izan dugu azken urteetan, dendarietikoa lehenetsiz (euskarazko produktuetan %5eko deskontua). 2019an beste horrenbeste egin dugu eta 2020an ere berdin ekingo diogu.*"

3.3.1.- OINARRIAK

- Euskarazko produktuen katalogorik zuzen ez, baina zeharkako zabalkundea egin da: 3.000 orri berezi banatu zaizkie LH eta DBHko ikasleei, euren etxeetara bideratuz.
- Jostailu denda guztietan kanpaina berezia burutu da, 2018koaren parekoa (euskarazko produktuen salmentetan %5eko deskontua egitea adostu zuten) eta orduan erabilitako materialari etekina aterata. Hemen ere informazio orriaren beste 3.000 ale banatu dira.

3.3.2.- ERAGILEAK ETA BALIABIDEAK

- Eragileak:
 - Euskara Zerbitzua (egitasmoaren koordinazioa).
 - Ikastetxeak (7)
 - Jostailu/opari dendak (6)
- Baliabideak:

- Euskara Zerbitzuak diruzkoak eta koordinaziorako giza-baliabideak (HNT).
- Ikastetxeetako zuzendariak (koordinaziorako bilkuretan parte hartuz).
- Saltokietako arduradunak.

3.3.3.- BALORAZIOA – EUSKARAZ OPARITU

Balorazio kuantitatiboa:

- Euskarazko produktuen katalogoa ezagutzera emateko kanpaina, 0-14 urte bitarteko ume/gaztetxoek (3.050) gurasoenganakoa da (5.000). Xede talde horretan ez dugu diskriminatu udalerrikoak edo eskualdeko umeak eta gurasoak ziren, eskoletan banatu da eta. Informazio orria guztiei banatu zaie.
- Horrez gain, jostailu eta opari denda guztiak inplikatu dira kanpainarekin, udalerriko seiak, euskarazko jostailu eta oparietan %5eko deskontua egiteko.
- Beraz, alde kuantitatiboaren arabera %100ean bete da kanpainaren helburua, hedapena.

Balorazio kualitatiboa:

- Sentsibilizazio kanpaina izanik, bere eragina neurtzeko tresnak baliatzea oso zaila da. 2019rako kanpainarekin bat egin duten saltokiei inkesta/fitxa bat betetzeko proposamena egin zaie. Egia esan, datu horiekin udalerrian bertan egiten diren erosketen berri izango dugu eta ez udalerritik kanpokoena. Datu fidagarriak izateko, gurasoen artean lagin bat hartu eta inkesta berezi bat egin beharko litzateke kanpainaren emaitzak neurtzeko. Hori, datorren urtean.

Aurrera begirako proposamena

Kanpainarako erabiltzen ditugun baliabide eurak erabiliko ditugu aurrerantzean, baina eraginaren neurketarako arestian esandakoa jarri beharko da martxan (dendariei inkesta, gurasoei inkesta).

3.3.4.- AURREKONTUA-GASTUAK

Orri berezia ...geure baliabideak	0
Guztira gastuak	0

3.4.- “KALEAN OLGETAN” KANPAINA

Sarrera idatzian aipatutakoa ekarri behar hona: *“Kalean Olgetan lemapeko kanpaina BAZTERTU egin da (2016ko kale neurketaren datuengatik kezkatuta esperientzia pilotu bat izan genuen 2017an eta tajuz garatu zen 2018an eta 2019an); 5-12 urte bitarteko haurrengan maila informalean eragiteko asmatutako kanpaina, urteko azken hiruhilekoan garatzekoa zena kaleko jolas leku desberdinetan. Larrialdiak ezarritako baldintzak oztopo izan dira.”*

4.- KRONOGRAMA (2020)

“Gurasoei begirako kanpaina”	Urt.	Ots.	Mar	Api.	Maia	Ek.	Uzt	Ir.	Ur.	Az	Ab
Materiala sailkatu											
Fitxak zabaldu eta batu								2019	2019		
Gurasoen ikastaldeak eratu									2019		
Gurasoei ikastaroak eman (zati bat online)	2020	2020	2020	2020	2020					2019	2019
Gurasoei HASI HEZI aldizk.											
Anbulatorioa (banaketa/jarraip.)											
Udal Erregistroa (“ “)											
Eskola agenda banatu											
Jarraipena (eragileen batzarrak)											
Familien arteko Lehiaketa											
BAZTERTUA											
Euskeraz oparitu											
Dendariekin batzarra (2019ko balorazioa; hausnarketa)											
Dendariekin batzarra (2020ko kanpaina prestatzeko)											
Orri bereziaren zabalkundea / ploterrak)											
Kalean olgetan 5-12 urte bitartekoentzat											
BAZTERTUA											

Egin behar batzuk ikasturtearen hasieran burutu behar dira eta 2018 urtea aipatzen da horietan.

5.- AURREKONTUA GUZTIRA

Gastuak

Gurasoei begirako kanpaina:		6.844,17
Ondorengoetaratze kanpainarako euskarriak (materiala /)	780,45	
HIK HASI (hiruhilabetekariaren harpidetza)	630,00	
Gurasoei euskarazko ikastaro bereziak 1.066,80+711,20	1.778,00	
Eskola agenda:	3.655,72	
- Testuak egokitzea..... 216,47		
- Diseinua, ilustr., inprimaketa,..... 3.439,25		
Familien arteko lehiaketa		0,00
“Euskeraz oparitu” kanpaina		0,00
“Kalean olgetan” kanpaina		0,00
Gastuak guztira		6.844,17

Diru sarrerak

Bizkaiko Foru Aldundiaren diru laguntza... GUZTIRA	1.164,11
---	-----------------

Defizita

Gastuak guztira	6.844,17
Diru sarrerak guztira	1.162,11
Defizita	5.680,06


Gernika-Lumon, 2020ko abentuan.

Íñigo Magunagoikoetxea Agirre
Euskara Arloko Zinegotzia



Bittor Zarrabeitia Bengoa
Hizk. Norm. teknikaria


I. Eranskina: Gurasoei begirako kanpaina (euskarriak)







HASI HEZI aldizkariaren oinarrizko alearen portada



II. Eranskina

Ebaluazio Txostena 2019-2020

GURASO TALDEAREN EBALUAZIO TXOSTENA 2019-2020

	<u>Orr.</u>
1. Datu orokorrak _____	2
2. Ikastaldearen balorazioa _____	2
• Hasitako ikasleen zerrenda eta jasotako ordu kopurua____	2
• Hasierako ikastaldearen helburuen betetze maila _____	3
3. Datu zehatzak _____	3
4. Ikasle bakoitzaren balorazioa _____	4

1. DATU OROKORRAK

Ikasturtea:	2019-2020
Eskaintza mota:	Euskalduntzea
Irakaslea:	Itxaso Baraiazarra
Ikasgua :	BUSTURIALDEKO AEK
Herria:	Gernika
Herrialdea:	Bizkaia
Ikasle kopurua :	11
Modulazioa:	120 ordu guztira
Ordu errealak:	120
Hasiera data:	2019/11/05
Amaiera data:	2020/06/30
Taldearen maila:	A1A0

2. IKASTALDEAREN BALORAZIOA

- **Hasitako ikasleen zerrenda eta jasotako ordu kopurua**

	Ikaslearen Izen-Abizenak	Jasotako orduak	Asistentzia	Abiapuntu
1	ALVAREZ RIOS, JUAN LUIS	56	% 47	A1A0
2	BARCO ARROYO, LORENA	116	% 97	A1A0
3	CORTES GALVAN, ANA ISABEL	108	% 90	A1A0
4	DEL OLMO DOVAL, ALEJANDRO	20	% 17	A1A0
5	FLORES MENDOZA, PATRICIA	10	% 8	A1A0
6	GONZALEZ VILLAMARIN, MARIA DOLORES	48	% 40	A1A0
7	HERRERA SANCHEZ , LUIS	20	% 17	A0A0
8	MATABUENA PEREIRO, RAQUEL	92	% 77	A1A1
9	RAMALLO CALDERON, JESSICA	18	% 15	A1A0
10	ROBLES RODRIGUEZ, NEREA	106	% 88	A1A0
11	SANTAMARINA CALDERON, MARIELA ALEJANDRA	18	% 15	A1A0

- **Hasierako ikastaldearen helburuen betetze maila**

Helburua guztiz bete bada **5** eta inondik inora ez bada bete **1**

	Ikaslearen Izen-Abizenak	1	2	3	4	5
1	ALVAREZ RIOS, JUAN LUIS				x	
2	BARCO ARROYO, LORENA					x
3	CORTES GALVAN, ANA ISABEL				x	
4	DEL OLMO DOVAL, ALEJANDRO		x			
5	FLORES MENDOZA, PATRICIA	x				
6	GONZALEZ VILLAMARIN, MARIA DOLORES		x			
7	HERRERA SANCHEZ , LUIS	x				
8	MATABUENA PEREIRO, RAQUEL				x	
9	RAMALLO CALDERON, JESSICA		x			
10	ROBLES RODRIGUEZ, NEREA				x	
11	SANTAMARINA CALDERON, MARIELA ALEJANDRA		x			

3. DATU ZEHATZAK

Helburuen betetze maila izan ezik, hasierako ikasle zerrenda oinarritzat hartuta ikasle bakoitzari dagokion zenbakiaren arabera 1etik 5era baloratuta:

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11
	Juan Luis	Lorena	Ana	Alex	Patricia	Lola	Luis	Raquel	Jessica	Nerea	Mariela
Puntualtasuna	3	5	5	5	5	5	5	2	4	5	5
Asistentzia	3	5	5	1	1	3	1	4	1	5	1
Aprobetxamendua	5	5	5	5	4	5	4	4	4	5	4
Motibazioa/	5	5	5	5	4	5	4	4	4	5	4
Jarrera											
Partehartzea	5	5	5	4	3	5	3	4	5	5	3
Erabilera	5	4	5	4	2	3	2	3	5	5	2
Orokorrean	4	5	5	4	3	4	3	4	4	5	3

4. IKASLE BAKOITZAREN BALORAZIOA

1 ALVAREZ RIOS, JUAN LUIS

IKASLEA:	ALVAREZ RIOS, JUAN LUIS
HASIERA MAILA	A1A0
BUKAERA MAILA	A1A0
JASOTAKO ORDUAK:	56
ESKURATU DITUEN GAITASUNEN DESKRIBAPENA:	Mailari dagozkion trebetasun hartzaileetan oso ondo moldatzen da. Emaileetan eroso komunikatzea lortu du lexiko falta eta akatsak izan arren. Euskaraz hitz egiten saiatzen da une oro.
HOBETU BEHARREKOAK:	Gramatika eta sintaxia, alde batetik, eta hizkuntzaren erabilera, bestetik.
OHARRAK:	Oso jarrera ona, ikasten jarraitzeko asmoa adierazi du. Itxialdian ezin izan du eskolekin jarraitu.

2 BARCO ARROYO, LORENA

IKASLEA:	BARCO ARROYO, LORENA
HASIERA MAILA	A1A0
BUKAERA MAILA	A1A1
JASOTAKO ORDUAK:	116
ESKURATU DITUEN GAITASUNEN DESKRIBAPENA:	Mailari dagozkion trebetasun hartzaileetan eta idatzizko adierazpenean eroso dabil.
HOBETU BEHARREKOAK:	Mintzamena. Akatsak egiteak beldurtzen du.
OHARRAK:	Oso jarrera ona, ikasten jarraitzeko asmoa adierazi du.

3 CORTES GALVAN, ANA ISABEL

IKASLEA:	CORTES GALVAN, ANA ISABEL
HASIERA MAILA	A1A0
BUKAERA MAILA	A1A1
JASOTAKO ORDUAK:	108
ESKURATU DITUEN GAITASUNEN DESKRIBAPENA:	Mailari dagozkion trebetasun hartzaileetan oso ondo moldatzen da. Emaileetan eroso komunikatzea lortu du lexiko falta eta akatsak izan arren.
HOBETU BEHARREKOAK:	Elkarreragina, batez ere ahozko adierazpenean.
OHARRAK:	Oso jarrera ona, ikasten jarraitzeko asmoa adierazi du.

4 DEL OLMO DOVAL, ALEJANDRO

IKASLEA:	DEL OLMO DOVAL, ALEJANDRO
HASIERA MAILA	A1A0
BUKAERA MAILA	A1A0
JASOTAKO ORDUAK:	20
ESKURATU DITUEN GAITASUNEN DESKRIBAPENA:	Trebetasun hartzaileetan zertxobait aurreratu du baina emaleetan ez du erakutsi aurrerapen handirik.
HOBETU BEHARREKOAK:	Elkarreragina eta ahozko adierazpena.
OHARRAK:	Lana dela eta eskolak utzi behar izan zituen.

5 FLORES MENDOZA, PATRICIA

IKASLEA:	FLORES MENDOZA, PATRICIA
HASIERA MAILA	A1A0
BUKAERA MAILA	A1A0
JASOTAKO ORDUAK:	10
ESKURATU DITUEN GAITASUNEN DESKRIBAPENA:	Kostata aurreratu du hartzaileetan baina emaleetan ez du erakutsi aurrerapen handirik.
HOBETU BEHARREKOAK:	Gramatika eta arauen ezagutza. Lexikoa.
OHARRAK:	Ez da eskola askotara etorri.

6 GONZALEZ VILLAMARIN, MARIA DOLORES

IKASLEA:	GONZALEZ VILLAMARIN, MARIA DOLORES
HASIERA MAILA	A1A0
BUKAERA MAILA	A1A0
JASOTAKO ORDUAK:	48
ESKURATU DITUEN GAITASUNEN DESKRIBAPENA:	Aurrerapen handia izan du emale eta ahozko adierazpenean eskolara etorritako ordu kopurua kontutan izanda.
HOBETU BEHARREKOAK:	Gramatika eta lexikoa, alde batetik, eta hizkuntzaren erabilera, bestetik.
OHARRAK:	Oso jarrera ona, ikasten jarraitzeko asmoa adierazi du. Itxialdian ezin izan du eskolekin jarraitu.

7 HERRERA SANCHEZ , LUIS

IKASLEA:	HERRERA SANCHEZ , LUIS
HASIERA MAILA	A0A0
BUKAERA MAILA	A0A0
JASOTAKO ORDUAK:	20
ESKURATU DITUEN	Kostatu zaio aurreratzea bai hartzaile zein



gernika-lumoko
euskara zerbitzua



GAITASUNEN DESKRIBAPENA:	emaileetan.
HOBETU BEHARREKOAK:	Gramatika eta lexikoa. Hizkuntzaren adierazpena eta elkarreragina orokorrean.
OHARRAK:	Ez da eskola askotara etorri.

8 MATABUENA PEREIRO, RAQUEL

IKASLEA:	MATABUENA PEREIRO, RAQUEL
HASIERA MAILA	A1A1
BUKAERA MAILA	A1A1
JASOTAKO ORDUAK:	92
ESKURATU DITUEN GAITASUNEN DESKRIBAPENA:	Mailari dagozkion trebetasun hartzaileetan nahiko ondo moldatzen da. Emaileetan eroso komunikatzen da lexiko falta eta akatsak izan arren.
HOBETU BEHARREKOAK:	Hizkuntzaren adierazpena eta elkarreragina orokorrean.
OHARRAK:	Eskolako giro eta nondik norakoarekin bat egiten saiatu behar du. Hurrengo ikasturtean jarraitzeko asmoa adierazi du.

9 RAMALLO CALDERON, JESSICA

IKASLEA:	RAMALLO CALDERON, JESSICA
HASIERA MAILA	A1A0
BUKAERA MAILA	A1A0
JASOTAKO ORDUAK:	18
ESKURATU DITUEN GAITASUNEN DESKRIBAPENA:	Trebetasun hartzaileetan zertxobait aurreratu du baina emaileetan ez du erakutsi aurrerapen handirik.
HOBETU BEHARREKOAK:	Hizkuntzaren adierazpena eta elkarreragina orokorrean.
OHARRAK:	Ez da eskola askotara etorri.

10 ROBLES RODRIGUEZ, NEREA

IKASLEA:	ROBLES RODRIGUEZ, NEREA
HASIERA MAILA	A1A0
BUKAERA MAILA	A1A1
JASOTAKO ORDUAK:	106
ESKURATU DITUEN GAITASUNEN DESKRIBAPENA:	Mailari dagozkion trebetasun hartzaileetan oso ondo moldatzen da. Emaileetan eroso komunikatzea lortu du lexiko falta eta

	akatsak izan arren.
HOBETU BEHARREKOAK:	Hizkuntzaren adierazpena eta elkarreragina orokorrean.
OHARRAK:	Oso jarrera ona erakutsi. Datorren ikasturtean jarraitzeko asmoa adierazi du.

11 SANTAMARINA CALDERON, MARIELA ALEJANDRA

IKASLEA:	SANTAMARINA CALDERON, MARIELA ALEJANDRA
HASIERA MAILA	A1A0
BUKAERA MAILA	A1A0
JASOTAKO ORDUAK:	18
ESKURATU DITUEN GAITASUNEN DESKRIBAPENA:	Trebetasun hartzaileetan zertxobait aurreratu du baina emaitzetan ez du erakutsi aurrerapen handirik.
HOBETU BEHARREKOAK:	Hizkuntzaren adierazpena eta elkarreragina orokorrean.
OHARRAK:	Ez da eskola askotara etorri.



gernika-lumoko
euskara zerbitzua



III. eranskina

**Euskaraz oparitu kanpainaren orri berezia
(Euskarazko produktuen katalogoa)**



%5eko DESKONTUA
euskarazko produktu guztietan
Abenduaren 1etik 31ra

		ANA OPARIAK Carlos Gangoiti, 6
BEREZI Juan Calzada, 14	AMILOTX San Juan, 25	OBABA Iparragirre 22
AIZU Don Tello, 32	GAUBEKA Don Tello, 3	ZARRA Barrenkalea, 4

www.katalogoa.org
info@katalogoa.org

musika informatika filmak aldizkariak
komikiak liburuak jostailu eta jokoak
gurasoentzako materiala